

# **HIZKUNTZA NORMALKUNTZA**

## **2024-25**

## IKASTETXEKO ANTOLAKETA



### ➤ Hizkuntza normalkuntzako arduradunak:

HNAT: Ana Arakistain

HN batzordekideak: Leire Gabellanes eta Maria Luisa Garmendia

Zuzendaritzarekin elkarlanean

### ➤ Bilerak:

#### ○ Ikastetxean

Irakasleen batzordea. Bilerak astean 3 ordu.

Ikasleen batzordea: Bileren maiztasuna hilean behin edo...orduak astearteetan 2. edo 3. saioan, edo asteazkenetan 5. saioan

#### ○ Ikastetxetik kanpo:

Lasarteko Normalkuntza Mintegia gutxienez hilean behin.

Galtzaundi: Hezkuntzako Euskara Mahaia

# HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA

eta URTEKO PLANA



ulibbarri programa

# HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA (HNP)

- Helburu nagusia ikastetxean euskararen ezagutza eta erabilera indartzea da, eguneroko jardunean, esparru guztietan (ikasleak, irakasleak, gurasoak, langile ez irakasleak).
- Lau urtean behin eta lau urterako egiten den proiektu bat da. Gure ikastetxean 2014an egin zen lehenengoa eta azkenena duela bi ikasturte, hurrengo lau ikasturteetarako plana: HNP 22-26
- Hizkuntza Normalkuntza Planari lotuta, ikasturtero Ikasturteko Plana diseinatzen da.

HNP oinarri izanda, ikasturterako helburuak eta jarduerak finkatzen dira, hainbat eremutarako:

1. Ikastetxearen antolamendu eta erabilera koherenteak.
  - Ikastetxeko hizkuntza irizpideak, kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza irizpideak
  - Hizkuntza-irizpideak ikastetxearen eremu digitalean

### 2. Ikastetxeko kideak eta eremu didaktiko-metodologikoa

2.1. Ikasleak euskaraz egin dezaten motibatzea eta euskararen aldeko jarrera izan dezaten, esku-hartzeak ikasgelan eta ikasgelaz kanpo.

2.2. Ikasleen komunikaziorako konpetentzia hobetzea: Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak erabiliz, idazmena-irakurmena landuz ... baita eremu digitalean ere.

2.3. Ikasleengan euskal kulturaren transmisioa bermatzea, ezagutza, kontsumoa eta sormena bultzatuz.

2.4. Irakasleen komunikaziorako konpetentzia hobetzea eta irakasleak, eredu eta eragile izatea.

2.5. Administrazio eta zerbitzuetarako langilean komunikaziorako konpetentzia hobetzea eta langileak eredu eta eragile izatea.

### 3. Familiak eta Komunitatea:

3.1. Familiak: familiekiko harremanetarako hizkuntza-irizpideak betetzea eta familiek komunikaziorako konpetentzia hobetzeko esku-hartzeak egitea.

3.2. Komunitatea eskolaz kanpoko jarduerak: elkarlanean aritu euskararen aldeko erakundeekin (*GALTZAUNDI, UEMA*) eta aisialdiaren esparruko talde eta elkarteekin.